



GABRIEL DÍAZ MAGGIOLI

Gabriel Díaz Maggiolik ingelesa irakasteko lizentziatura ikasi zuen Uruguain. Graduondoko ikasketak (maisutza eta doktoradutza) Britainia Handiko University of Bath-en egin zituen, eta han espezialdu zen hizkuntza-irakasleen prestakuntzan. Estatu Batuetako George Washington University-n ere eginak ditu zenbait ikasketa, eta Hubert H. Humphrey Programan Urugairen ordezkari gisa aritzeko hautatua izan zen, Fulbright Batzordeak babestuta, The Pennsylvania State University-ko Hezkuntza Fakultatean (2002-2003).

Bestalde, aditu-lanetan aritu zen Estatu Batuetako Whashington DC hiriko Center for Applied Linguistics-en (CAL). Uruguain, ingelesa atzerriko hizkuntza gisa irakasten jardun zuen hezkuntzaren zenbait mailatan: oinarrizkoan, ertainean eta goi-mailan; eta bere ardurapean egon zen Bigarren Mailako Hezkuntzaren Batzordeko Ingelesaren Ikuskaritza Nazionala. Halaber, The British Schools ikastetxe pribatu elebiduneko zuzendaria izan zen. Gero, Atzerriko Hizkuntzen Departamentuko buru gisa aritu zen, Uruguaiako Hezkuntza Publikoaren Administrazio Nazionalako Hezkuntza Prestakuntza Batzordean. Kudeaketa-ardurekin batera, aholkulari ere jardun zuen hezkuntza-berrikuntzarako programetan hainbat erakundetarako: UNESCO, UNICEF, EUROPAKO BATASUNA, BANCO INTERAMERICANO DE DESARROLLO, MUNDUKO BANKUA, BRITISH COUNCIL eta ESTATU BATUETAKO ESTATU DEPARTAMENTUA. 2010-2015 urteetan Maisutza Programa zuzendu zuen eta, baita ere, Atzerriko Hizkuntzen Fakultatea The New School-en, Estatu Batuetako New York hiriko unibertsitate aurrerakoian. Ingeles-ikasleentzako testuliburuak egin ditu, baita hizkuntza-irakasleentzako erreferentziazko metodologia-liburuak ere; horiez gain, hainbat artikulua idatzi ditu —bai aldizkari profesionaletan, bai ospe handiko erreferatodun aldizkaritan—, eta curriculumak zenbait mailatan kudeatzeko materialen egile ere bada.

Azkenik, nabarmentzekoa da lidergo profesionalarekin loturiko karguak bete dituela nazioarteko zenbait elkartetan, hala nola Teachers of English to Speakers of Other Languages-en (TESOL, Zuzendaritza Batzordeko kidea 2006-2009), International Association of Teachers of English as a Foreign Language-en (IATEFL, Prestatzaileen Prestatzaileentzako Interes Taldearen Batzordeko kidea), Association for Supervision and Curriculum Development-en (ASCD), American Educational Research Association-en (AERA) eta American Council on the Teaching of Foreign Languages-en (ACTFL). Gabriel elkarlanean aritu da Amerika osoko lankideekin —Ipar, Hego eta Erdialdekoekin— (argentina, Uruguai, Txile, Brasil, Paraguai, Ekuador, Kolonbia, Panama; Mexiko, Belize...), Europakoekin (Espainia, Italia, Frantzia, Belgika eta Ingalaterra), Ekialde Ertainekoekin (Israel, Arabiar Emirerri Batuak) eta Asiakoekin (Korea, Japonia eta Singapur). Gaur egun, Hizkuntza Politiken ildo estrategikoaren zuzendaria da Uruguaiako Hezkuntza Publikoaren Administrazio Nazionalan.